

ANAITASUNA

MARTIA (3) 1966 — XIII URTEA — N.º 133 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan.

SAN MARTIN DE LA ASCENSION,

Au be markakoa da ba. Euskal-errian santuak parra-parra bagenduz be, baiña bi baiño euki ez ta oraindik olan ibilli bear. Burua gogorra ez ete daukagun benetan be gero...! Zer iruditzen jatzue bildots andi ta eder bat bagendu? Zera irudit, ederto legokela, apari on bat egiteko edo. Baiña jan bearrean, beren jabetasunari buruz burrukan asiko bagiña, bildotsa alperrik galtzen dagoan bitartean? Ez al deritxazue galtzea baiño danok aprobetxatutea obe litzaizkigula? Bai benetan!

Arrospide-tar Jon-en oroimenez

1965-grgo. martiaren 8-an Euskalerrriak ta euskaldun guztiok gizon ospetsu bat galdu genduan. Munduan zear eta gure errietan batez be ain ezaguna jakun Arrospide-tar Jon medikua. Lerro onen bitartez bera eriotza gogoratu gura dogu, erabat jaungoikoari otoitz bero bat eskeinduaz bere animen alde.

Eziñezkoa litzaizkigu Euskalerrriaren eta gizon guztien alde egin ebana adieraztea. Ainbeste gauza eder egiñekoa dogu izan, batez be osalaritzan. Ezaurritzat or dagoz bere liburuetan itxi dauzan 45.000 azterketa kliniku.

Zelako ezpala alako egurra esan oi da. Ta egia. Bere gurasoen lez, izaeraz oso ona zan, txeratsu ta maitekor, edozeñeri biotza errez irabazten eutsone. Kristan eta sineste andiko gizona zanez, bere arazo eta eginbearrak zeatz beteten ebazan.

Arrospide jaunak ba eban beste alderdi bat be, ixildu eziña: bere euskal-zaletasuna. Jaungoikoak eta berak bakarrik dakie zenbateri eskeiñi eutsan laguntasuna euskal gauzetan lan egiteko. Maite eta ezagututen ebazan euskal aldizkariak eta euren alde sendo ta zintzo lan egin be bai. ANAITASUNA aldizkari onek berba egiterik baleu, Arrospide-n alde zeozer esan bearko leuke. Arrospide-k ba ekian ANAITASUNA-ren barri; ta ain txiki, errikoi, ariñ eta pitxi ikusiaz, grazi emoten eutson seguru, aititite zartxo bateri loba txikienak emoten deutson lez. Orregaitik maite ta zabaldu eban ainbeste.

Gizon zintzo, osagille errukior eta euskal-zale benetako izan zan Arrospide-tar Jon jaunaren alde euki daigun danok otoitz bero bat.

(Zazpigarren orrian Enbeitatar Balendin bertsolariak Arrospide-n oroimenez egin dauzan bertsoak ikusi zeinkezuz).

BIZKAI-KOIA ETE DOGU?

Ba.. San Martin de la Ascension-egaz orixe berbera gertatu jaku. Or ibilli gara batek ba daki zenbat denporan Bergarako edo Beasain-goa dan jakin naian. Bai batzuk eta bai besteak be saiatu dira bakoitzak bere arrazoiak ataraten. Baiña zer lortu ete dogu? Eztabaida zorrotz orreek izan ezik ez dot uste besterik. Baten batzuk Ibarrangelu-koa izan leitekeela be esan dabe. Nik orain ez dotaz ekarriko bakoitzak atara dauzan arrazoiak. Bakar-bakarrik esan gura neuke San Martin-en jaioterriaren gain aspalditik diskutidu dala iñoiz gauza argirik egin barik. Begiratu Aita Uriarte, igaro dan gizaldiko baskologo ospetsuak zer diñon:

"San Lorenzoren jaioterriaren ganian dagozan leguez ezbai eta disputac..., alacuac aurquituten dira San Martin de la Ascensionen jaioterriaren ganian. Vergaracuac diñue ango zemia dala, Beasainguac bertacua dala, eta Ibarranguelucua ango semia dala, Acordatik Ibarranguelura guazala bidiaren bee aldian dagan baserri "Aguirre" derichon baten jaiyua dala. (Ez da au nere amesa, burutaciñocua. Alanche esan eban San Martinen denporako erligioso bere lagun batek)".

Ta bien bitartean San Martin zorakeri orreek entzun nai ez ta, belarriak itxi eziñik. Naiago leukez ba otoitz beroak eta

batez be, bere ejenplu ederraren jarraile sutsuak, bere jaioterriko zaleak baiño.

Mixiñoeri begira

San Martin euskaldun jatorra genduan. Ez jalotzez bakarrik, baita izatez be. Buruz azkarra izan bear zan. Erbesteko jenteen izkuntza ondo jakin ez arren, arin eta ondo moldatuten zana. Ta batez be... biotz eder baten jabe. Aolan genduan gure euskaldun jatorra.

Euskalerrrian gaur be mixiolari faltan ez gagoz. Bai! ba daukaguz eta ainzat ganera. Baiña zertan asi naz. Mixiolariak ba daukaguzala-ta arrotuten! Poztutekoa -da izan norberen errian ainbaste mixiolari eukitea. Baiña ori ez da naiko. Bakoitza izan bear dau mixiolari, lagun urkoeri lagunduaz.

Gizonak izan gaitazan. Kementsua ta trebea dana, izan daiala kristiñau. Kristiñau izateak egin-bear onek emongo deuskuz. Baiña gogoan euki kristiñautasuna trebeentzako bakarrik egiña dala.

Ez da naikoa San Martin angoa edo emengoa dala defendidutea. Garrantzi andiagokoa dogu bere erakutsiak jarraitutea. Ta San Martinek kristiñau izaten erakutsi gura deusku. Naiko trebeak al gara kristiñau izateko?



GALDAKANO-TIK

Euren aberrietatik urrun dagozan emigranteak, geroago ta geiagotzen doaz mundu zabaiean.

Bizkaian diranetatik geientsuenak, bertokoak Españiakoak doguz, danok dakigun lez. Baiña bada beste aberri batzuetatik etorrikorik be. Guzti oneik 400 inguru dira, ta aberri danetarikoa: Europako, Ameriketako, Australiarren batzuk, eta baita be Txina-ko bat.

Oneik danak ez deuskue buru-auste andirik emongo, ze leku egokietan dagoz enplegauta. Españi barrukoak daukaguz txarrago. Zer jango datoz, ta guk ez deusegu eskeintzen ez jaterik, ta ez begirapenik; ta bai ikusi-eziña sarri. Erri onetan be ba dagoz onetariako batzuk, geienak bertokoak izan arren. Neure lantokian be ezagututen dot tekniko bat, Kuba-ko bera. Oneri danari eskeñi ez bear geinkioe laguntasan beroago bat, geuk euren aberrian billatura gura geunkelekoa?

X. X.

ez zan betetan, baiña etorten izan direnak, pozarren egon dira. Atsegin izan jake Batasunerako Zortziurrena. Gizon gitxi ikusi dogu. Total gitxi, emen esaten dan lez.

Azkeneko egunean mezea bakarrik euki genduan. "Meza konzelebratua", Obispo ta guzti. Obispoa Bermeotarra, Mons. Karlos Anasagasti. Boliviako Beni deritxan Bikariatuko Gotzaiña da. Beragaz dagoz ogei mixiolari euskaldun. Zortzigarren egun onetan eleizea ondo bete zan. Bosteun bat persona jazarri leitekez eleizako beheko bankuetan.

Obispo jaunaren aurretik urten eben beste lau mezaemolileak, konzelebranteak. Meza guztiz ederra izan zan. Eleizearen Batasunaren alde eskatuteko dagoan Meza apartekoa zelebratu zan. Obispoak euskeraz egin eban sermoia edo homilia, papera eskuetan artuta. Asikeran esan eutsen entzule guztieri zelan Aita Santu Paulo VI be leidu egiten dauan beti, jenteari berba egiten deutesonean, eta berak be bardin egiten ebal esan eutsen, orregaitik lotsatu barik.

Jenteari asko gustatu jakon dana. Konturatu barik pasa jakon ordu bete. Pozarren urten eben eleizatik. Dana euskeraz egin zan. Uts bat ikusi genduan: gizonak gitxi. Ain gitxi. Eta egun oneetan gizon asko dago errian, arraintzale geienak be etxean aurkituten dira-ta.

Esperientzia ona izan da aurtengoa. Urrengoan obeto ta geiago.

JOAN AZURMENDI.

SANTURZE-TIK

Egun zoragarri bat pasatu eben Errege-bezperean, Santurzen dagon Benefizientzietxeko umeak. Santurze aldean tokaten dan Amerikaniuen flotako gizonak euki eben biotzkada zabal bat. Urtero eukiten dabe ganera. Amerikanuei ez iake asko kostaten poltzikoa piska bat usutea, emetik emoten baiake. Eta, ara! 18.000 peseta golpean emon ebezen flota orreko gizonak Benefizientzietxeko umetxoentzat. Gero, nabierako empresak be ustuan eban piska bat poltzikoa eta aolan, 22.000 pesetazko pilloa egin zan.

Umetxoak ofizialidadeko jantokira joan ziran. Antxe, amerikano auudiak eta Benefizientziko umetxuak, alkariturik jan eben. Ondo jan be gero! Bankete eder bat izan zan. Alaitasun eta anaitasun ederragaz poztua izan zan izanbe bankete denpora guttia. Etorri daitezala olako amerikanoak sarritan Santurze aldera!

GERNIKA-TIK

Aspalditxotik erri polit onetan bizi naz. Erri polita benetan, bere jardin, edategi, trabena ta beste txukuntasun aibatategaz. Nik esango neuke Gipuzkoan Donosti letxe Bizkaian Gernika dogula: ain da polita...! Orain berton Muxika aldeitik dagoan Gernika sarrerea konponduten diardue, azereak barriztatu ta apainduaz.

Erriko obreak. Badabiltza norbaitzuek lan onetan be. Unez une ikusten dira etxe barriak jasoten, edo barrutian edo kanpo aldean. Oraintxe berton Madariaga barra-ren aurretian jarri deutse eskeletoa sei pisuko etxe barri bateri. Galanta etxea, bai bizi ta bai ilteko be (asko ez dala il zan langille bat bostgarren pisutik jausita).

Kanpo aldean, obra barriak jasoten, obra apain eta egokiak. Orain peskaderi barriak jaso dituez, Bermio-koak baizin eder.

Instituto barria. Agustinoen konbentu zar orretatik —olan emoten dau beñiñe— ikastetxe barri apain barri bat sartuko jaku bereala. Eztago nonbait terreno faltarik... inguru zabalak eta eratsuak inguratuten dabe konbentua izaneko etxe zar ori. Zati bat atondu eben, eta orain makiñatxo bat gazteen jarri dituez beren estudioak ikastetxe barri onetan. Baiña konbentu zarraren zati andiena oraindiño zuzen dago, ta ointxe asi dira lurreratuten. Presupuesto, barriz, ez ei da izango 14 milloelik berakoa, zuzendariak iñoanez. Lana ta diruaren on-

dakiñ asko ez jake sobratuko, seguru be!

Erriko ainbientetxoa. Gain ontzaz luzetxu egin bearko neuke tajuzko gauzarik esan gura baneu. Ambiente kontua ez da gauza erreza esaten, arpegi asko ditu-ta. Gaurkoz ez dot ia ezer esango, gauza jenerala azaldu besterik, naiko dot eta. Niretzat —aitu ondo!— ambiente alegretxua da, edaria-riena bizkortasunez motibua. Basuak egunero izaten dabez euren iraulteak —ta kontuixu— basua iraulti ta gizona bete. Gero aldrebezoak egiten dabe: basua situndu ta gizona iraulti. Gerniken domeketan eta astelenetan ez da gauza zailla au ikustea.

LURGORRI-K

ZORRONTZA-TIK

Konzilioan egon ondoren, bere aldekoak eta jaiotetxea ikusteko, Zorrontza-ko auzotegira egin dau Abasolo-tar Ambrosio Obispu jaunak.

Orain, barriro be India-ra bear dau egin.

Bere ardurapean dagozan lurraldeak zer-nolakoak diran galdetu deutesoneari erantzutean, aulakoxea dala esan deutse: Ia bi milloi biztanletatik bere artaldikoak 54.000 dira bakarrik. 800 mat milla ondiñokarren jentillak dira. Zismatikuak 261.000, ta 174.000 protestanteak.

Alan da be, abadeki asko daukazala-ta pozik dager Abasolo gotzaiñ karnieldarra.

BERMEO-TIK

Batasunaren Zortziurrena egin genduan, fraille frantziskanoean eleizan, urtarrillaren 18-25. Iluntzeko zortziretan asten zan "paraliturjia" deritxoen eleizkizuna.

1. Sarrerako kantua abes-tuten zan, iru fraille klerikuak altarara eldu bitartean. 2. Batzarburuaren lenengo berbak, eguneko asmoak eta eskariak azalduteko. 3. Testamentu Barriko irakurgeta. 6. 105 salmoa kantuz. 7. Batzarburuaren berbaldia, irakurgetetako ikaskizuna agertuteko. 8. Erriaren otoitza: batzarburuak eguneko intentziñoak agertuten ditu. Erriako otoitz egiten dau, monitoareak esandako eskarieri kantur crantzunik. Otoitz aparteko bat, batzarburuak aurretiaz esanik, erriak errepetietan dau. "Aita gurea" danak batera. Ta azken otoitza.

Paraliturjiaren ostean, Meza. Egun batean euskeraz eta bestean erderaz egin genduan.

Jenteak ondo erantzun dau, lenengo aldiz izateko. Eleizea

ABADIANO-TIK

Abadiano-n Santa Ageda jaietarako, beste gauza askoren artean, aurtan idi-probak antolatatu ziran. Aurtan proba oneek aparteko garrantzi bat euki dabe gaurko probalarik onenak eta famatuenak parte artu ebelako: Mendata-ko Ikeriya, Berrizko Antzua, Azpeitia-ko Arantzeta, Bermeo-ko Pedernales, Markina-ko Sarrabe, Busturia-ko Lezamiz, Larrauri-ko Zarandona, Lujua-ko Zarraga, Izar-ko Manzisidor... t. a. Probalarik ezezik, periodistak, fotografoak eta orretarikoak be ba ziran naiko. Ta jentea —zertan esanik be ez— pilloka egon zan, probak egunero iru bider izan arren. Proba oneek Santa Ageda egunean bakarrik ez, aurreko egun bietan eta osteko domekan be egon ziran.

Kinielak be ez ziran falta. Eduardo Urcelay salatu zan kiniela/oneek preparatuten; eta ondo preparatu be gero. Osterantzean esan daijala Garitaonandia pelotariak. Irabazi ebazan 15.000 peseta zeozer esan gura dabe seguru. Antonio Barrutiak be atara eban bere partidotxua, orrenbeste izan ez arren.

Eta probak interesgarriak izan ziran benetan. Berbakaz ezin daiteke esan ordu orretan Abadiano-ko plazan egoan berotasuna. Nik neuk beintzat onetariako proba bat gaur arte ez dotela ikusi esan bearrean nago. Idiak be majoak izan ziran. Areek bai egozala naiko pentsu ta baba jan-da. Askorik ulertu ez arren areek eukezan ipurdi biribillak ez deritxot lasto ta galtsuagaz ataratakoak diranik. Ez gero! Ni —egia esan— urte asko dira kalean bizi nazala. Baiña, ume nintzantetik gogoratuten dot zelan neure aitak beti eukiten ebazala atze-biko txal bi edo, korteari itxure apur bat emoteko. Ordutik dakit orretariko ipurdiak ez dirala ataraten galtsuagaz.

Santimamiñe

Aurtengo urtarrillaren bian igaro dira 50 urte Santimamiñeko artzuloa aurkitu zala. Gure aurretikoen bizimodua jakiteko oso interesanteak ditugu artzulo onetan agiri diran margo edo pinturak ezagututa.

Oso antxiñetik zan ezaguna Santimamiñeko artzuloa, baiña iñork etzekian ezer, an barruan gordetik eukazan aberastasunen barri.

Pintura oneek aurkitu ebazana Jose F. de Bengoetxea dogu. Onek, beste mutiko batzuekin artzulo onetara arrazalde bat pasatzen joanik aurkitu ebazan ango margoak.

ko gizona, artzulo ortan bizi izan zala, au da, orain dala 10 milla urte.

Au ikusita, Bizkaiko Diputaziñoak Santimamiñeko artzuloa erosten dau ta Arantzadi, Brandiarán, ta Eguren jakitun ospetsuen ardurapean izten dau. Bizkaiko artzuloatik auxe dogu inportanteena, ta baita be Europa-ko inportanteenetakoa.

Barandiaran-ek artzulo au ondo ikusi ta ikasi ondoren ta beste euskal-erriko artzulo geienak ikusita, ogei urte inguru tanean igarota argitaratzen dau nolakoa izan dan gure preistoria.

rrak billatzen ditugu Santimamiñen.

Millaka urte batzuk geroago "Arri aroko" azken aldean ikusten gara: "Magdalenense". Denpora au orain 15 milla urte inguru azten da. Garai onetan be gizona Santimamiñe-ko artzuloan bizi da. Garai onetakoak dira bertan ikusten doguzan margoak; danak pintura baltzaz egiñak: zezen bat, basurde bat. otso bat, bas-auntz bat, iru auntz, lau saldi ta 21 bisonte.

Ikusten danez ba zan garai artan pizti ta animalia gaur egun euskal-errian ikusten ez diranak. Aro onetako karakteristika bat dogu gizonaren irudirik ez ikustea.

Santimamiñe-n ikusten ditugu baita be orain 10 milla urte gizonak erabillitako tresna batzuk. "Pirenaicus" deritxogun gizona bizi izan zan aro onetan. Arraza auxe dogu euskal arrazaren oñarria.

Orain 5 milla urte inguru asten da ludi ontan beste aro bat, "neolitikoa", "arribanduaaren aroa". Aro onetan asmatzen da Txirrinkolea, errubede. Ludi onetako inbentorik aundienetakoa dogu asmakizun auxe. Aro onetako gorpezurrak be ba ditugu ta oraingo euskal gorpezurren antz izugarria dauke.

50 urte agirian

Euliak eztira lez, jakitunak laster asi ziran artzulo onen barri jakin naian. Jesus Guridi izan zan lenengo artzulo onen inportantzia azaldu ebana. Egun gitxi barru, Frantzi-ko jakitun batek, Breuil'ek, baieztu eban artzulo onen inportantzia, ta lenengo ikustaldian esan eban "AZILENSE" kultura-

Orain dala 20 milla urte

Barandiaran-ek diñoanez, orain dala 20 milla urte euskal-erriko mendietan ebiltzen gizona, Neanderthal deritxogun gizona dabil garai onetan. Onen ondoren Cro-Magnon arrazako gizona ikusten dogu, ta onen azu-

RAIMON

Askatasunaren eske garrasika

Raimon'en izena danok entzun dogu abeslari gazteen izena aitatu danean. Raimon gazte jatorra eta zintzoa da. Jativa'n (Valencia) jaio zan 1940'ko Abenduaren 2'an. Bere ogeitabost urteagaz alde batetik bestera dabil gozinen pentsakerea aldatu guraz.

EUSKALDUN GAZTEOK, ITXARTU!

Euskalerrian orrelako abeslari bat bageunke! Gaurko gazteak dana erderaz kantatuten dabe musika ariña edo ritmo moderno bada beñepein. Zergaitik Euskalerrian be euskerazko musika nago geure gazteren bat musika eriña egiten eta euskeraz kantatuten asiko ba-litz, Euskalerriko gazterik txalotuena eta maitatuena izango litzakela.

Aurrera musikaalri gazteok, Euskalerria zeuen zain daukaue!

Raimon'ek bakea, bizitza, mixeria, ezbardintasuna, injustizia, gosea... erabilten dauz bere abestietan. Gizon guztientzat bakea, garrasi egiten deutse bere entzuleeri. Eta lenengotik auxe esan gura deusut: dan-dana katalanez abestuten dauala.

Raimon'ek alde batera itxi maitekerizko berbak eta gizon guztienganako egiazko maitasuna eta errespetoa eskatuten dau. Gazte maiteminduen berbak berak entzuten. Baiña Raimon'en berbak biotzik gabeko gizonaren espiritua be jaso egingo leuke.

Eta bere musikari buruz nik ezin dot esan tajuzko gauzarik. Ni neu beintzat enaz iñoiz be aspertuten. Eta ez dot uste neu bakarra nazenik. Madrid'en, Paris'en eta beste toki askotan amaika txalo jaso dauz Raimon jatorrak. Jendea bereganatu egiten dau Raimon'ek eta batez be zeu konturatu barik bere sentimenduak sentiduarazi. Orregaitik Raimon'en entzulea ixil-ixilik egoten da geienetan abestia amaitu arte bere arnas-soiñua be ez galduteko, eta amaituten dauanean txaloa eta "viva" besterik ez da entzuten.

Eta bere musika, musika ariña da, gure egunetako musika. Baiño musika bikaiña, jatorra, batez be berbarekin batean entzuten danean. Dena katalanez abestuten dau. Berak diñonez orain erderaz kantatutea, bere erriari traiziño bat egitea litzake. Denpora gitxian 70.000 disko saldu dauz Raimon'ek.

Gazte zintzoa eta txalogarria benetan geure Raimon jatorra!

IL DA GEROKO PROBLEMAK

Bai irakurle!, eta ez txantxetako problemak. Ba dira bost bat kilometro inguruetakoa Muxika-Ariatza-n gertatzen diranak. Jentea arrituta dago zelan izan daitekean, eta abadeak trankil oster. Bai ba... lepoko minik be etxake egiten eta...

Eta beti problema au arakatu edo atara naian. Illak ainbeste indar ete dauke? Edo illari lepoan bost kilometro egite gustatzen ete jake? Ariatza-n bat ilten danean, naita berton eleiza ederra euki, Muxika-ko Parroki-ra eroan bear izaten da eleizkizuna egiteko, eta lepoz gainera. Abadea aurretik arin; andariak lepoko miñagaz aurretik ikusten ez dabela; atzo zarrak tatarrez-tatarrez aurrera begira noiz elduko eta gizonmutillak euren tertuletxuen kontuak kontetan, aurrean zer doan konturatu barik.

Ta atzetik ekin, ez dagoala deretxorik. abadeak be ondo dake problema onen barri, baiña eurek be lepoan ibilteko gogoia edo... kasu gitxi egiten dabe.

Ta ez da problema gatxa ba! Ara atara eta erresultadu bakarra ta egokia. Bat il da Ariatza-n eleizkizuna. Ostean artu auttomobilean eta Ortu Santura.

Ez da erreza. Ia ba ikasten dozuen ariatztatarrok!

IRRINTZI

AITA

IMANOL BERRIATUAK

ortik eta emendik baturiko

Barriak

KRISTIÑAU

- Ez daigun itxi bakarrik Paulo
- Desterrua ta koakziñoa, totalita

VIETNAMEKO BAKEAREN ALDE

Urtarrillaren 8-an esan eutsen Paulo VI-garrenak, Sede Santuagaz artu-emona dauken diplomatikueri: "Eleizaren indar moralagaz gobernueri lagundu geinkioela uste dogun bakotxean, prest gagoz, Jaungoikoa testigu, eta edozein alegin egingo dogu, bake justu bat mantenetako eta aurrera eroateko, oraiñarte Eleizeak gordetan izan dituan protokolozko oiturak alde batera itxi bear badoguz bere".

Orixe egin dau Aita Santuak Vietnameko kasuan. Munduko naziño guztieri, eta batez bere Vietnameko gerran zerikusi gein daukeneri eskatu deutse bein ta barrero, bakearen alde lan egiteko. Aurretiaz jakin dau berak, jente askok ez zituala bere alegiñak ontzat artuko. **De facto** Aita Santuak errekonozidu egin dau Txinako gobernu, eta pausu au ez da danen gustokoa izan. **Avvenire d'Italia** periodikuan irakurten dogun lez, Eleizea ez da orain kontentetan lengo nota diplomatikuakaz; orain dei egiten asi da gizonen kontzientziari; eta olan Eleizeak benetan konplietan dau bere eginbear profetikua.

Aita Santua bakarrik?

"Ez daigun itxi bakarrik Paulo VI-garrena!" Aolan asten da editorial bat, urtarrillaren 6-an, **Témoignage Chrétien**, Frantziako periodikuan. Egia esateko, gauza gatxa da jakitea, ze neurritan jarraituten deutsoen Aita Santuari kasu

Vietnameko amaika eleizgizon

Saigonen, urtarrillaren 8-an, amaika sazerdote katolikuk dokumentu bat argitaratu dabe; eta bertan eskatuten deutsee Vietnam bietako agintariei, "al dan guztia egin daiela, gerra au amaituteko". "Ezin geinke ontzat artu —diño— gure erriaren zati biak batzuko naiz elorkizun oba bat billatzeko atxakiagaz, anaien arteko guerra iltzaille au geiago luzalu daiela".

onetan katolikuak, eurretariko zenbat dagozan bere kontra, eta zenbat direan trankil ikusten dabenak, Aita Santua bakarrik konprometidu daitela katoliku guztien izenean. Ez dago zetan esan: situaziñoa ez da bardiña katoliku erri guztietan, Vietnameko gerran batzuk besteak baiño zerikusi geiago dauke-ta.

Eun eta ogetazortzi amerikano

Iparramerikako Estatu Alkartuetan, joan dan abenduan, deklaraziño inportante bat agertu da naziñoako periodiku askotan. Deklaraziño ori Bakearen aldeko Katoliku Mobimentuak argitaratu dau, eta bertan agertzen dira 128 personalidaderen firmadak. Personalidade guztiak, katolikuak dira; batzuk eklesiastikuak eta beste batzuk laikuak. Deklaraziño orretan, protestau egiten dabe Washingtoneko politikuen kontra, Saigonen olako gobernu klasea sostenietan dabelako, bakea billatuteko ardura gitxi artzen dabelako, eta gerrea bera bear dan moduan egiten ez dabelako. Abenduaren erdian, Vietnameko gerrearen gaiñean diskutietako, Washingtoneko Unibersidade katolikuan batzar bat egon da; eta Aita Philip Berriganek, jesuita famaduak, argi ta garbi berba egin dau ango gudu mardikatuaren kontra. Manchesterren, Pittsburghen eta beste leku askotan, bakearen aldeko manifestaziñoak egin ditue katolikuak erriko katedralaren aurrean.

Gabonetan, Spellman Kardenala, New Yorkeko artzobispa eta ejerzituko bikario jenerala, Vietnameko soldadu amerikanoeri bisita bat egitera joan da. "Gu katolikuak gara —esan deutse soldadueri—, eta orregatik maite izan bear dogu Kristok erakutsi euskun bakea; ezin gein tekez egon odolaren, gorrotoaren eta opresiñoaren alde. Naziño gaixo au defendietako etorri da gure erria oná"

Alandaguztibe, kapellau militar baten zeregiña, Obispo naiz Kardenal batena izanarren, ez dabe danak begi onakaz ikusten. Abenduaren 31-n, Brookyneko abade batek, Power jaunak, karta bat argitaratu dau **New York Times** periodikuan bere Obispoak egindakoaren kontra. "Antza danez —diño abadeak—, Spellman Kardenala Vietnamera joan da soldaduen fusillak bedeinkatuteko, Aita Santuaren borondatez betiko ixilduta egon bear litzakezan fusil berberak".

Euskaldun katolikuak zer?

Ez dot uste, Vietnamen pasetan dana bear dan moduan sentietan dogunik. Ortik diño, munduko katoliku zintzoenatarikoak garela. Egia ete da, Sarritan esaten dogu euskaldunok, Vatikanoak diplomaziari jaramon larregi egiten deutsoa. Or daukogu orain Aita Santua, diplomaziari kasu aundirik egin barik, Eleizaren zeregin profetikuan sartuta. Bakarrik itxiko dogu geuk be Aita Santua? Lan egin daiela berak gure izenean, eta konpondu daitetzala eurak eurretara Vietnamekoak, etxeko problemakaz naikoa daukogula-ta?

Ixildu egin ditue

Abenduaren 4-an, gazte talde batek, Fordham Unibersidade katolikuko estudianteak geienak, desfile bat egin dabe New Yorkeko Artzobispuaren aurrean, eta euren pankartetan aolako sloganak agertzen zirean: "Artezidada gura dogu Eleizan!", "Desterrua ta koakziñoa, totalitarismuaren instrumentuak dira!", "San Paulo errebelde bat izan zan!"... Abenduaren erdian, Eleizaren Askatasunaren aldeko Istitutoak karta agiri bat bialdu deutse New Yorkeko Artzobispoari eta Jesuiten Probintzialari, eta karta ori mila ta zazpireun personalidade katolikuk firmetan eben.

Zergatik ori? Zemendiaren azkenetan, Aita Daniel Berrigan, jesuita ondo ezaguna, poeta, profesore ta eskritore ospetsua, bere nagusiak Sudamerikara bialdu eben. Aita Berrigan, kopresidentea zan Vietnamen aldeko Eleizgizonen Komitekoa. Beste presidente biak ez zirean katolikuak. Bat protestantea zan, eta bestea judegua. Euron ustez, Aita Berrigan desterrura bota dabe, Vietnameko gerrearen kontra gogor berba egiten ebalako; euron eritxiz, New Yorkeko artzobispoak presiñoa egin dau, eta Jesuiten Probintzialak atara bear izan dau Norteamerikatik bere menpekoa. Iru periodiku katolikuek, **The National Catholic Reporter**, **Commonweal** eta **Ave Mariak**, zarata aundia atara dabe asuntu onen gaiñean, abendu osoan eta urtarrillaren lenengo astean.

MUNDUAN ZEAR

Arrenal - diño Frantziako periodiku batek.

aren instrumentuak dira!

Aita Daniel Berriganegaz batera, eta motibu berberakaitik antza, beste jesuita bi ixildu ditue: Aita Keating eta Aita Kilfoyle. Euren aurretik, azken illabeteotan, bardin ixildu ditue: Aita O'Brien, Albany (kuestiño razialakaitik), Aita Groppi, Milwaukee (kuestiño razialakaitik), baiña obispoak, Konzilliotik etorrita gero, atzera emon deutso "libertadea"), Aita Philip Berrigan (Danielen anaiea, kuestiño razialakaitik eta Vietnameko asuntuagaitik), Aita Kenny, Lucas eta Meagher, Californian (kuestiño razialakaitik), Aita Mullaney, New Hampshiren (Vietnameko asuntuagaitik), Aita Coffield, Halloran eta Dubai, San Francisco (kuestiño razialakaitik), Aita Ouellet, Alabaman (kuestiño razialakaitik)...

Zenbat bildurpean?

Aitatu doguzan sazerdote oneek, zelan edo, danak bear egiten eben sendo justizia sozial, razial naiz internazionalaren alde. Periodikuetako komentadoreak arri-tuta agertzen dira, ez ainbeste "ixilik egoteko" aginduagaitik beragaitik, santziño ori emoteko moduagaitik baiño. John Leo periodistek, **The National Catholic Reporter** asterokoan diño, prozedimentu ori burla bat dala Vatikanon Bigarrenak emon deuskun esperantzearen kontra. "Mundu osoan —diño berak— nekez egongo da beste istituziñorik, justiziaren zentzu ain urri eta errekursurako bidean ain estu daukonik".

Eta beste leku baten diño: "Sazerdoteen libertadea, erantzun bako kuestiño nagusienetarikoa dogu Amerikako Eleizan. Eta, Aita Santuak eta teologuak esan leikeezan gauza guztiak gorabera, kuestiño ori erantzun barik geratuko da, ariketa katoliku amerikano talde on batek libertade ori aldarrika eskatuarte".

Eta periodista orren pentsamentua, periodiku berean barriro agertzen da izen bako editorial baten: "Aita Berrigan bat desterrura bota badabe, zenbat sazerdote bialdu ditue ixiltasunera? Zenbat erreligioso bizi dira bildurpean. beti kontuz Ordenako nagusiak ez ofendietako, euron eskubide kuasi-absolutuak ez zapaltzeko? Zenbat sazerdote dagoz seguru, Eleizan profetak izateko Jaungoikoak deitu deu-

AITA O'REILLYREN KONTRA

Urtarrillaren 25-ean, Aita O'Reillyren izena aitatu barik, beronen kontra jarri da Estatu Alkartuetako Delegadu Apostolikua.

Monseiñor Egidio Vagnozzik, diskursu baten, guztiz gogor kritikatu dau Aita O'Reillyk egin dauana. "Seguru nago —esan

tsela? Ze Eleiza klase bizi leiteke olako atmosfera baten?"

"Dana dala, nagusiok adore euki bear leukee, euren erabagia espliketako eta motibuak azaltzeko. Eta esplikaziño ori ez leukioe emon bear sazerdoteari berrari bakarrik, Jaungoikoaren Erri osoari baiño, sazerdote baliente bateri agoa itxi eragiten jakonean, asuntu orretan danak baitauke zerikusia".

GOIKO TA BEKOEN ARTEKO DIALOGUA

Nortamerikako Obispoak komisiño episkopal bat izandatu dabe, katolikuen arieko dialoguari bide egokia emoteko.

"Gaur egunean —diño komisiño-koak— Nortamerikako Eleizan ez daukogu ezelango estrukturarik, goitik berako dialogua gure artean egiteko. Laikuak (eta diosesi askotan eklesiastikuak) ez dauke bide normalik, euren berrizanak, euren ideiak eta asmoak obispoari presentatzeko eta jakin eragiteko. Eta bardin pasetan jake obispoeri, euren menpekoakaz alkarber-beta probetxugarri bat eukiteko. Benetako berrizana daukogu, ainbat ariñen olako estrukturak kreetzeko".

Komisiñoaren ustez, gauzea ez da erreza izango; eta alegin aundia egin bear izango da, obispoen autoridadea Konzilioak gura dauan lekuan ipinteko.

Aita Congar eta Dialogua

Informations Catholiques Internationales amabosterokoan, urtarrilleko lenengo numeruan, berba oneekaz amaituten dau Aita Congarrek bere artikulua: "Sarritan esan da, katoliku erriaren barruan dialogo eta ekumenismuaren antzeko zerbait egon bear litzakela. Guztiz konforme nago orregaz; eta nik, gizaiño onek, nai-koa astirik eta indarririk baneu zeregin

dau Aita Santuaren errepresentanteak— Saint John Unibersidadean jazo dana danak txartzat artuko dabela. Sazerdoteak ez dira sartu bear, militante modura. Sindikatuetako eztabaida laboraletan. Gauza orreek ez dira, euren konpetentziakoak. Sazerdoteak, ordenaziño egunean, obediencia ta erreberentzia agindu deutsee euren nagusieri; eta eurak euretara ezin leikee zeregin tenporaletan erresponsabilidaderik artu, euren nagusien baimena ouki ezik".

orretan lan egiteko prest egongo nintzake. Nire ustez, zeregin au, Konzilio oste-ko arazoan artean, premiña guztiz aundi-koa da".

SAINT JOHN UNIBERSIDADEKO PROFESOREAK HUELGAN

Saint John Unibersidadea New Yorken dago, eta bera da naziñoako Unibersidade katoliku guztien artean inportanteena. Zuzendariak, Aita Pauldarrak dira.

Urtarrillaren 3-an, bertako profesoreak huelgan jarri dira. Bi illabete lenago, berreun profesorek protestazko manifestaziñoak egin zituen Unibersidadean pasetan ziren gauzen kontra. Euren ustez, salarioak eskasak zirean, zuzendarien paternalismua larregia zan, profesoreak ez euken irakasteko libertaderik eta lanean irauteko segurantzarik.

Esploziñoa Gabonetan etorri zan. Unibersidadeko Kontseillu Aministratibuak, profesoreakaz berba egin barik, ogetamar irakasle kanpora bota zituan, euron artean Aita O'Reilly, Unibersidadeko profesoreen Sindikatuko presidentea eta teolojia irakaslea.

Aita Cahillek, Unibersidadeko presidentea, akusatu egin ditu ogetamar profesoreak; eta esan deutse, olako gauzetan sartzeko eskubiderik ez daukela. Irurogeta bederatziko profesore, protesta modura, huelgara joan dira; eta euren diskonformidadea agertu dabe, Unibersidadeko gauza asko zentzun bako kriterioagaz egiten direalako eta kargu barriak ukupetako Aita Pauldarrak preferentzia itzala daukelako.

Parte biak laguntziñoa eskatu deutsee Unibersidadeko 12.500 ikasleeri, euren alderdiari eusteko.

Eztabaida onek zarata aundia atara dau katolikuen artean, eta periodikuetako orri asko bete ditu. Zabaldu egingo ete da tirabira au naziñoako Unibersidade katoliku guztietara? Aita O'Reillyk, posible dala uste dau.

Sujestibua be ez dan zeozer

Lengo batean, zemendiko zenbakian titulu beronegaz idazten neban, etsita, ezeren ardurara barik bizi garala salatu guraz. Orain, itzuli, ta orri beraren beste alderdia begiratu guraz natortzue.

ZENBAKI BATZUK

Goi - Amerikakoak dira. 19.000.000 gizasemek lotarakoan sendakin-pildorak artzen dabez. Ezin ba, osterantzean lorik egin. Zaiñak menpetuten gaitue bai, ta gu urduri.

Goi-Amerikan bertan amar milloi zaiñ-eri edo neurotikoko agiri ta izentatuak bizi dira; ta txartel ori bagekoak beste 20.000.000 diralakoa.

ERRUAK

Beti gabizala urduri, presaka ta ernegaten, gure ioran, lor, biotzkada ta tamalak bultzatuta. Gure asabak bizitza osoan ikusten edo entzuten eben beste usetekabe ta itsumusiu egunero somatzen doguz guk, radio, telebista ta egunerokoen bidez. Orduko 500 kilometroka ibilli geinkez. Mundutxoko guztietako barri danak dakiguz. Ogeta lau orduk geiago eziñean, buruko miñez ipinten gaitu. Bizitza osoan —sari konturatuten be ezkarera— fabrika ta motor zaratatsuekin bat bizi gara.

Batez be —ta esan dodan guzti orregaitik bear bada— lotu barik ta estu, une bakoitzean gure bizitza ta indar guztiak jokatuko bageunkez bezela, itxo bearrean gabiz.

ONDOREAK

Eukiten doguzan burukomiñetatik euneko larogei, larritasun eta bildurretik jatorkuz. Ezlarriko miñak —irentsi eziñik ibiltzeak—ta gure ioranak ekarten deuskuen estutasunetatik, euneko larogetamar biderrez. Gure urdaillak jasan bear izaten dabezan gaixotasunetatik gixienez erdiak jatorri beraxe daukie: tripariñ, minbizi, ta abar. Guztiok dakigu biotzean zelako erantzunak iza-

ten dabezen artegatasun onetik.

Au dana ezta neuk asma-turikoa; dakitenak, sendagilleak-eta, diñoskue.

Beste ondore batzuk, geuron almenetan banatzen deuskuz gure biziera onek. Gure pentsamentu ta aolkuak, gure irudimen ta asmoak, galga bageko dantza zital batean dabilta lasterka. Gure ioran ta sentimenduak eztabe gure asabetan euken jaserik. Gure naimen ta erabakiak, taupadaka, gure ondoan entzun daiegun edozeiñ muxikaren arauetara dagie.

GATX BIAK BATERA

Pentsa eitekean ezin daikezala emon batera, lenago-ko aretan adierazten neban ajolagabekeria, ta gaur dakartan artegatasuna. Baiña zoritxarrez bat-batera aurkiltuten doguz.

Ta zeintzuk izan daitekez gertakizun onen sustrai sakonak? Segurutik gaurko bizitzak emoten deuskuen arauetara mogitu, ta bere soñura dantzatu bearra.

Baiña baita be, ta batez be geure norberekoitasunak. Geure zillera gagoz begira —esan leiteke— ta geure buruarengandik kanpo ez jaku ezer inporta. Ostera, geure arazo ta bearrak garbituteko itxo be egingo giñake. Ta gure bierrizate orreik geroago ta geiago diran lez, gure estutasun ta erneguak be geroago ta andiangoak doguz.

Ezin dogu —egia da— era batera mundu guztia aldatu; eziñ, andanadan dagozan motor guztiak lotu; eziñ, ixiltasunean ta patxadan bizi. Eziñ. Ta gainera ixarto legoke olakorik egitea. Baiña eziñ ete dogu ba, geuron bizimodua aldatu? Bear gendukenari sendo eutsi, ta egoismo gitxiaugaz bizi; auxe izango genduke sendaki-pildorarik onena.

Ara Jesus-ek zer diñon: "Ikasi nigandik, biotz otsan ta apala naz ta".

ALMIKE.

Bilbo'n eskola geigo bear dira

Zezeilleko zenbakian titulu bardiñegaz agertu genduan artikulu bat. Ille ontan San Iñazio, Altamira eta Otxarkoaga-ko barriotan gertatuten dana adierazi gura dogu, azaletik ezpada be. Numeroak arritzeakoak dira izan. Baiña bear bada iñor ez da arrituten askorin beintzat bakoitzak norberen arloak konponduta daukazalako. Norberen tripea bete ta or konpon!, ori da askotan berbaz ezpada be, egiteekaz esaten doguna. Bien bitartean, miliaka ume eskola barik.

San Iñazio auzotegian zer?

San Iñazio'k 18.000 lagun ditu. Orretako 3.500 eskolarako garaiean dagoz. Iru sailletan 1.500'eri eskola emoten deutsee. Sail orreetako bi, San Frantzisko Jabier ta San Iñazio, osasun-giro andirik bakoak dira. Alan be, oraindik asko gelditzen ziran eskola barik, ta eliz-barrutiak jarri eban beste bat, 50 ume artzen ebazala; eta beste bat "Patronato de Juventudes"-ek, beste 100 umeentzat.

Leku oneetara beste auzo bateko umeak be etorten dira, "Bakerito"-koak; onek be 800 lagun ba daukoz; beraz, ume batzuk be eukiko dauz.

Alan da ze, inguru oneetako gaztetxoena eskola barik gelditu bear. Gaiñera, eskolarako automobillik be ez dago. Erabakita dagona betetzen danean, dana zuzenduko dala pentsatzen da.

Otxarkoagak eskolarako 8000 ume

Otxarkoaga'n alegin asko egin dira prolema au garbitzeko. 21.000 lagun dira, eta eskolarako 8.000 ume, lautik amalaurako urteak dabezenak. Urteko 650 aur baitaiatzen dira.

Esan dotan lez, ainbeste lan eginda gero be oraindik prolema garbitu barik dago. 4 eta 5 urtetako 1.200 umeek ez dauke eskola-lekurik. Eta ori, naiz Sección Femenina"-k 5'tik 10 urtetarako 250 neska txiki artu; eta gainera, bi txandetan, goiz eta arrasti, beste 600 neska eta mutiko supermerkatu-leku batean, "19 de junio" izena daukana. Eskola oneetako zuzendariak esan euskunez, "Sección Femenina" oneri txanda artutea oso biarrezko ei da.

Prolema oneek gozatzeko "Ramón y Cajal", beste eskola batzuk, be jarri dabez, eta eskolará umeak automobilletan-ta eroaten saiatu be bai.

Akademi eta kolejio sortu barriak ezezik Vera Cruzeko Patronatua dago, lau monjak zaintzen dabela. Eskola primariko lau gradutan 228 ume daukeez leku egokietan. Enseñantza Media bat be ba da, iru kursotan 80 ume dauzana.

Baiña Otxarkoaga'ra kanpotar asko dator, eta prolema ori asko gurituko da oraindik. Ez litzake txarra izango egitea pentsatuta dagozan eskola orreek al dan azkarrena egingo balira.

Altamira'ko eskolak

6.500 bat lagun ditu; eskolarako, barriz, 1.400 ume, 4'tik amalaurako urteak daukazeenak. Urtean, zear 140 bat aur baitaiatzen dira. Eliz-barrutiko sei graduetako eskolatara 239 ume joaten dira. Eskola

onek argi onik ez dauke, ume-dade asko aize gitxi.

Umeak ez dabe ezer ordainduten. Ayuntamentuak eskolarako maiak eman dauz; mai-xuek 475 peza daukez eskola eta bizitzeko etxe bakarra pa-

gatzeko. Argia eliz-barrutiak ordainduten dau. Eliz-barrutiak 4 urtetatik 6'rako aurtxoentzat beste eskola bi be ba daukoz. Onek illeko amar ogerleko emoten dabez. Onekaz bizi dira Estaduak ordainduten ez deuten maixuak.

Aurtengo matrikulak 102 pe-

seta balio dau. Beraz, urte oneetako ume askoek etxean gelditu biako dabe. Prolema au gero ta gatxagoa izan bide da. Basurto ta Olabeaga'tik aur asko oiñez doaz. Laister egitekotan diran 4.500 bizitzek oraindik geiago gogortuko dabe prolema au. Esaten dabenez, eskolak be egingo ei dabez.

Jon Lopategi, bertsolaria

- ☒ 1. *Enbeita izan dau bere maixu plaza-gizon egin arte.*
- ☒ 2. *Naiago dau konkursoetan jakatu.*
- ☒ 3. *Trabaziakaitik bertsoetara ezin daitekela joan-diño.*

Izan be bertsolariak beti ta ugari euki doguz euskalerrian. Ezagunak jakoz edozeñeri atzoko Arrese-Beitia, Enbeita-tar Kepa, Iparragirre, Bilintx, Pello Errota ta Orain, barriz, gaurko baten izena dakargu gure orrietara —Yon Lopategi dogu bera— Bizkaiko onenatarikoa bai da.

Lopategi 1960-an agetu zan lenengoz plaza-gizon, Mungia-ko txapelketan irugarren geraturik. 1951-an Mungia-n txapeldun; 1962-an Gernika-n ta Bilbao-n txapeldun; 1962-an Donostian ospatu zan Euskalerriko txapelketa nagusian bederatzigarren geratu zan; ta, azkenez, 1964-an Bizkaiko txapeldun otera be. Merituak, bada, ez jakoz falta Lopategi-ri.

Bere jaioterria, Araitza, Muxikako auzoa.

Ogei ta zortzi urtegez bertsolarien txapelagaz lenengoz jaso zan.

Ogei ta amar orain, eta txapela bere mendean dago, eta sendo. Noiz arte? Ez dakigu. Baiña egia auxe: Muxikek txapel-jaste asko daroaz; eta ze dotore emon be! Len Enbeitarrak, ta oin Lopategi. Berriatuko erria, uste dot, baka-pozian ez dala jarriko, bere almenean txapel ori ikusi arte. Erri ontan be ba dago bertsoetarako griña ba! Or dagoz, bestela, Mugartegi, Az-

pillaga ta abar, Muxika-ren aurrean jarrikoak bat baiño geiagotan. Eta eldu leiteke eta lasterkoan, noski, aldi pozgarri ori Berriatuko errira. Gu iñor ez, ori ukatzeko.

Aurrera mutillak eta ekin!

Da goazen aurrera gure txapeldunagaz.

Gaztea ta bizkorra dogu. Luzeran ez andia. Ona emen zer diñon berak: "Bertso zalea beti izan naiz. Enbeitaren bertsoak eukitzen nituan nik danak. Idatzi be bai apur bat egin dot lantzein".

Ogeita bi urtegez, Sakramentinoakaz bere estudioak



egin da gero. etorri zan Villarro-tik. Oin Gernike-ra ezkontuta dago. Bere lantegia Eloorri-on dago. Untxe dira zapi urte konkursoetara azaltzen asi zana.

"Asko agertzen naz errietan bertso-kantari. Alan da guztiz ere, diño, naiago konkursoetan ekin. Arrazoia: "Konkursoetan lotu bai, baiña idea emon be bai".

Eta au be diño: "Trabaziagaitik bertsoetara ezin daiteke joan".

—Bederatzi puntuko bertsoa oso gatxa dala diño.

—Gatxa? Idea goitik bera eroaten da or gatxa.

Ta bereala asmatu eta bota eban bederatzi puntuko au:

Bederatzi puntuan bear dot oin ekin naiz-ta gauza orretan asko ez jakin. Zelan nagoen emen praille kuadrillakin zerbait asmatuko dou beingoan eurakin, buru argiak, gaztetasunakin, nire indarrakin eta goguakin; alan da guzti ere gauza asko ezin.

"Bizkaitarrak, diño Lopategi, beti sartzen doguz gipuzkerak, idatzita dagozan bertsoak (Xenpelarrenak eta) ia danak gipuzkeraz dagozako, eta bertsolaria ibiltzen da beti orreek irakurtzen eta orreetatik ikasten. Ortik dator ori".

Au da Lopategi diñozkuna.

Zorionak eta urte askotan, Lopategi.

Eta azkenez beren bertso batzuk: "Neska aberatsarekin dabillena", ipiñi eutsen bein puntua. Eta gure Lopategi olan apaindu zan gitxi gorabera:

Neska batekin ibiltzen naiz pasiatutzen pozikan. Oso dotore gorputzaz eta diruz ezta billosikan. Aingeru ori maitatuzeko, zeñek ez du biotzikan? Aren eskutik nijoanian, bizkarrak ezta otzikan.

Beste baten lau rima auker ipiñi eutsezan: fama, dama, ama, darama. Eta bera modu onetara atondu zan:

Bizi guztian euki izan dot konkistadorien fama, naiz-ta asarrez euki arren etxian aita ta ama. Erri onetan ezaututzen dot maitatutzen dotan dama, baiña ni pobre arkitzen naiz ta aberats batek darama.

Beste bein amaitukeria ipiñi eutsen: "kaltez". Eta onela konpondu zan:

Ezkundu nintzan egun batean neska dotore ta maitez. Zelako tranpak ibilliko nitun, orain konturatu zaitez. Ondo pozikan eongo nintzake andra ortatik apartez: guzur guziak izandu ziran neure buruaren kaltez.

Arrospide'tar Jon il jaku

*Fritu oner emolle
Genduan zugatzak
Danontzako zituna
Bardin bere emaitzak,
Zazoirik onenian
Bere eriotzak
Tamalez itxigaitu
Txiro ta aberatzak.*

*Ozalari-lez aundi
Geiago gizona.
Borondatez indartsu
Maitasun zakona.
Neurri bako ongille
Apal ta zuzena,
Ezin leike azaldu
Bere nortasuna.*

*Baserrì eta kale
Mar mar bardiña da.
Askok tamalez diño,
Arrospide il da!*

*Amaikatxo mesede
Egiñik juan da.
Beralango gizon bat
Izango ete da?*

*Itxi dozuz munduko
Zeure arazuak.
Emazte sendi lagun
Senide ta auzuak.
Zeruetan daukazuz
Zabalik besuak
Aurretik juan ziran
Zeure gurasuak.*

*Agur Jon Arrospide
Agur, agur ta erdi.
Zeru goietan Jaunak
Atzedendu bedi.
Irakatsi eder bat
Ba dogu zugandi,
Beti zaindu dozula
Egian alderdi.*

Enbeita'tar Balendin.

ETXERRE.

e u r o p a

FILOSOFIAREN KONDAIRA - I

Aspalditik maite dot JAKIN aldizkaria: ezagutu neban une beretik. "EUSKAL GAZTEDIA KULTURA BIDEETAN". Bai lema ederra. Baiña pozgarriago da oraindik JAKIN-ek ez dauala lo artu lema-berba polit orreen gainean ikustea.

JAKIN, gaurkoz Euskalerrian inprimatuten dan kulturazko errebistarik bikaiñenetako bat dogu duda barik. Errebista bizia, gartsua, fiña. Berba bitan: gazteak egiña dogu JAKIN. Ez da gramatikako uskerien zale, mamira doa xuxenik, Axular-en esaera zaharrari jarraiki: ... "euskara eta euskararen mintzatzeko eta eskiribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala ta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia"...

KULTURAZKO ERREBOLUZIÑO A

JAKIN-taldeak —eta taldea aitatzean JAKIN mogimenduaren euskarri ta pizgarri diran ainbat euskal gazte jator aitatuten doguz— euskal kultura benetan artu dau. Euskalerrianen kulturazko erreboluziñoa artu dau JAKIN-ek bere gain: zeren ikusi dau-ta ikusi erri baten erreboluziñoa ezin daitekeala airoso aurrera atara, erriaren izakera eta

pentzakera, bere kultura, arrotu ta sasoiu barik. Kutturak emongo deutso erriari nortasuna eta berez determinatzeko indarra, libertadeaz baliatzeko eldutasuna.

Or dauko, ain zuzen, JAKIN-ek bere egiteko garrantzizkoa: euskaldunok beste erriek letxe kultura bizi bat izan daigun alegindu. Xede txalogarria!

ERLAIZ-ek aitatu deuskuzan "Europa" eta "Filosofiaren Kondaira-I" oneetaz gaiñera, JAKIN-taldeak ba ditu bere ardurapean beste liburu batzuk be oso interesgarri zeure euskal liburutegirako.

1. **Jainkoa** —Kristau Ferearen Sustriak— Luis villasante. 207 orrialde, 40 peseta.
2. **Ipuin-barreka** —Euskaltzaindiak saritutako ipuin-txorta—. felix bilbao. 280 orrialde, 40 peseta.
3. **Lau Ebanjelioak**. mendizabal-goitia. 48 peseta plastikoagaz, 42 plastiko barik.
4. **Euskal-Aditza** Gipuzko-bizkaierak—. joseba intxausti. 40 peseta.
5. **Gero** —euskeraz eta gazteleraz— axular. a. villasante-k eratu. 783 orrialde, 250 peseta.
6. **Euskera** i. omaetxebarria. 230 orrialde, 70 peseta.
7. **Elorri** —1964'ko Jose Antonio Agirre Saria— biloriano gandiaga. 225 orrialde, 64 peseta.
8. **Elorri** a. anasagasti-k erderara itzulia 135 orrialde, 25 peseta.
9. **Unamuno ta Abendats** xalbatore mitxelena-ren liburu "ezezaguna". Bialdu beti zuen eskariak zuzenbide onetara:

JAKIN — Arantzazun
ONATE — (Gipuzkoa).

Europa ta Filosofiaren kondaira- I

Euskera gai dogu Merkatu Komuneko "sei" andiekin tratu eta artuemonetan sartze-ko be... Ekipoan, taldean egiñikoa da Europa liburu interesgarria. Europeismuari buruz idea garbi bat emoten dau. Gurko euskal literatura berpiztuan etorkizun dizdiratsua dauken gazteak parte artu dabe bertan. Eta onek dira liburuaren atalak: Itzaurrea, Europa gure erria, Europa-ren

izaera edo ideia, Europa-ren alkartu naiak ixtoria zear, Europa-ren bidekurutzetan, Pio XII-gna. eta Joanes XXIII-gna. eta Europa Alkartua, Minorien izkuntza eta kulturak Europa Alkartuan, Txina ta Japoi Europa-ren dirdaripean, C.E.E. ta laterkideen eskubideak, Politika estrukturak europear alkartasunean... 229 orrialde ditu, eta salneurria: 55 peseta.

"Euskal soroan liburu asko falta zaizkigu oraindik", diñosku Zabaleta jaunak itzaurrean. Dana egiteko dago. Baiña, bein da barriz, JAKIN-talde gazteari ez iakoz ausardia eta kemena falta biar astunari ekiteko. Eta, gaur au eta biar bestea, Filosofiaren Kondaira oso bat eratuteko asmoa dauko, euskeraz. Oraingo au lenengo alea dogu. Mo-

nografi gisan dator. Euskera jatorrean emona dago eta terminologia ere naiko politto. Egilleak gazteak doguz, bat ez beste. Sail oneek ditu liburuak: SOKRATE AURREKO FILOSOFIA, LEN ESKOLASTIKA, BARUCH ESPI-NOZA, eta HENRI BERGSON. 143 orrialde, 55 pesetan salgai.

EUSKERA GAI DA JAKINTZARAKO BE

Baztertu daiguzan geure artetik, eta bein betirako, edozeingo sasi-profetaen mito pesimistak. Gero ta ausartago ta gero ta nor-ago agertuten iaku euskera. Euskera gai dogu gaurko gizarterako, espirituaren barrutiak urratuteko, jakintzaren korapilloak askatuteko eta animaren ondoak aztertuteko. Ori da JAKIN-ek argitaratu barri dituan euskal liburu sakon bi orreek adierazi gura deuskuena. Ez dogu tituluetan begiak ezarri besterik: "EUROPA", "FILOSOFIAREN KONDAIRA".

Ikusten dozuenez, ba ditugu euskal liburuak. Baita be euskerak eta erriak iraun daien aleginduten dan gaztedi sendo bat. Baiña ez da naiko. Erriak, euskaldunok daukogu erantzuna. Asi gaur bertatik zeure euskal liburutegia osotuten. Irakurri euskeraz. Eskatu adierazi doguzan liburu barri eta sakon biok zuzenbide ontara: Dirección de JAKIN. Arantzazu. ONATE. Guip. Eta, bitartean, biba zuek, JAKIN-eko gazteok, Ba dogu entzutea beste liburuen batzuk be gertu daukozuezala publikatuteko. Ekin eta jarrai ondoezik barik!

ERLAIZ